



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

28 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (2. or.).
- Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakina (18. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- “2000 Agenda”k Nafarroan izango duen eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Nafarroako Gobernuak lan istripuei aurre egiteko hartuko duen neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Vokswagenek Iruñean daukan lantegia Seat entpresari saltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Tokoginekologia eta Famili Plangintza arloetako osasun-prestazioaren gaineko irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua**

### *AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu da. Proiektu hori 1998ko otsailaren 2ko 10 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### OSOAREKIKO EMENDAKINA

#### **«EZKER ABERTZALEA»**

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Iruñerriko lineako bidaiari-garraioari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakina.

Erabaki-proposamena: Iruñerriko lineako bidaiari-garraioari buruzko Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzea.

Zioak: Lineako bidaiari-garraioa bai baina lineaz kanpokoa ez arautzea ez da nahikoa, taxi-zerbitzuaren garrantzia eta zerbitzu hori emateari dagokionean hiriburuaren eta eskualdearen artean dauden ezberdintasun handiak kontuan izanik.

Bestalde, Foru Lege Proiektuak ukitzen duen lurralde-eremua murrizta dela eta hiriburuaren hurbiltasunak kaltetzen dituen herriak bazterten dituela iruditzen zaigu.

Azkenik, Foru Lege proiektuak ez du aurreikusten doakotasuna, bidaiari-garraio publikoaren zerbitzua ahalik eta gehien erabil dadin beharrezkoa izan arren.

### **ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

#### **1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA**

##### **1. EMENDAKINA**

#### **«EZKER ABERTZALEA»**

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko emendakina.

Proposamena: 1. artikulua testua aldatzea, honelaxe:

“Foru Lege honen xedea da 3. artikuluan zehazten den eremutik atera gabe egiten den bidaiari-garraio publikoa, lineako erabilera orokorrekoa iraunkorra nahiz aldi baterakoa zein lineaz kanpokoa, arautzea.”

Zioak: Era honetan, garraio bide posible guztiak aurreikusten dira: autobusak, taxiak, tranbia eta abar.

#### **2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA**

##### **2. EMENDAKINA**

#### **«EZKER ABERTZALEA»**

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko emendakina.

Proposamena: 2. artikulua testua aldatzea, honelaxe:

“Foru Lege honetan arautzen den garraioa eskualde-garraio hartuko da”.

Zioak: Eskualde-garraioaren kategoriak, hiri barruko edo hiri artekoak ez bezala, nahasmen-

duzko egoerak eta eskumen-gatazkak eragozten ditu.

### 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 3. EMENDAKINA

##### «EZKER ABERTZALEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko emendakina.

Proposamena: 3. artikulua testua aldatzea, honelaxe:

1.- "Foru Lege hau aplikatzeko lurralde-eremua Iruñerriko Mankomunitateko udalerriek osatzen dutena izanen da."

2.- "Lege honek arautzen duen bidaiari-garraio publikoko eskualde-mailako zerbitzuan integratuzko gelditzeko, aurreko legeroaldean aipaturiko toki-entitateek berretsi egin beharko dute adierazitako zerbitzuan sartu nahi dutela."

3.- "Foru Lege honek indarra hartu eta gero Iruñerriko Mankomunitatean sartzen diren toki-entitateak automatikoki geratuko dira Iruñerriko bidaiari-garraio publikoko zerbitzuan sartuak, baldin eta 2. legeroaldean galdaturiko betebeharrak betetzen badute".

4.- "1. legeroaldearen arabera Foru Lege honen aplikazio-eremuan hasieran sartutako eta 2. legeroaldean galdaturiko betebeharrak betetzen ez duten toki-entitateak Iruñerriko bidaiari-garraio publikoko zerbitzuan sartu ahal izanen zaizkio Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiari eskatze hutsarekin, kasuan kasuko Udalaren Osoko Bilkurak horretarako erabakia hartu ondoren".

Zioak: Iruñetik hurbil dauden herriak direnez gero, nahiz eta "hiri jarraia" delakoa ez osatu, bertako biztanleen arteko harremanen azkartasuna beharrezkoa da, are gehiago kontuan hartzen baldin bada herrigune horiek hiriburuaren beraren biztanle "iheslariak" hartzen dituztela, eta harekiko menpekotasun osoan daudela (osasan-zentroak, hezkuntzakoak, administrazioarenak eta abar).

#### 4. EMENDAKINA

##### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

##### FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

3. artikuluari aurkezturiko emendakina. Aplikazio-eremua.

Aipaturiko udalerriak toponimia zuzena erabiliz izendatzen direla ziurtatzea.

Zioak: Terminologia zuzena erabiltzen dela ziurtatzen da.

#### 5. EMENDAKINA

##### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

##### FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

3. artikuluari aurkezturiko emendakina: 3. puntua gehitzea, honela dioena:

3. Mankomunitateko zerbitzuetan bildurik dauden gainontzeko toki-entitateek Foru Lege honetan arauturiko hiri barruko garraioa aplikatzeko lurralde-eremu hori osatu ahal izanen dute baldin eta horretan parte hartu nahi dutela adierazten badute, egin beharreko azterlana egin ondoren.

Zioak: Iruñerri osoan zerbitzua ziurtatzea.

### 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 6. EMENDAKINA

##### «EZKER ABERTZALEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4.1, 4.2 eta 7.1 artikuluei aurkezturiko emendakina:

Erabaki-proposamena: 4. artikuluko 1. eta 2. idazatietatik eta 7. artikuluko 1. idazatitik "hiri barruko" espresioa "eskualdeko" espresioarekin ordeztea.

#### 7. EMENDAKINA

##### «EZKER ABERTZALEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko emendakina.

Erabaki-proposamena: Aipaturiko artikuluko 2. idazatitik bigarren legeroalde guztia kentzea.

3. idazatia beste modu batean idaztea, honelaxe:

3.2) artikuluan aipatzen den Udalen berrespeña sei hilabeteko epean egin beharko da Foru Lege honek indarra hartzen duenetik; epe hori igaro ondoren, Iruñerriko Mankomunitateak bere gain hartu beharko ditu Foru Lege honen xede diren garraio-eskumenak, 2 hilabeteko epean".

“Eskualdeko garraio publikoko zerbitzuan integrazioa berretsi duten udalerriek bederatzi urtez iraunen dute bertan, gutxienez”.

“Mankomunitateak “Iruñerriko hiri barruko garraio publikoari buruzko Plana” egin eta onetsi beharko du, eskumenak bereganatzen dituenetik lau hilabeteko epean”.

“Aurreko lerroaldean adierazitako epea igaro delarik Mankomunitateak Plan hori onetsi ez baldin badu, Nafarroako Gobernuak beste kudeaketa-modu bat sustatuko du 3 hilabeteko beste epe batean”.

Zioak: Zerbitzua atzerapen gehiegirik gabe ematen hastea ahalbidetzen du.

## 8. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. artikuluari bestelako 3. puntua gehitzeko emendakina. Honelaxe dio:

“Integrazio hori sei hilabeteko epearen barruan egin beharko da, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera”.

Zioak: Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak horren alde egin duten errebindikazioa aintzat hartzea.

## 9. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 3. idazatiari aurkezturiko aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

“3. Integrazio hori sei hilabeteko epearen barruan egin beharko da, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera”.

Zioak: Eskumen-hartzea gehiegi ez azkartzea, Foru Lege honetako 5. artikuluan aurreikusitako Garraio Plana onetsi baino lehen gerta ez dadin.

## 10. EMENDAKINA

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluan aldaketa egiteko emendakina

4. artikuluko 3. zenbakia aldatzea. Honako testu hau izanen du:

3. Integrazio hori sei hilabeteko epearen barruan egin beharko da, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera.

Zioak: zehaztasun handiagoa.

## 11. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina: 4.3 artikuluari aurkezturikoa.

4. artikuluko 3. lerroaldean “integrazioa egin da...”tik lerroaldearen bukaeraraino doana kentzea proposatzen da.

Zioak: aurkezturiko beste emendakin batzuekin koherentzia mantentzea.

## 12. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. artikuluari 4. puntua gehitzeko aurkezturiko emendakina. Honela dio:

“Mankomunitateak Foru Lege honen xede diren garraio-eskumenak hartuko ditu 5. artikuluan aipaturiko Garraio Plana onetsi ondoren”.

Zioak: Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak horren alde eginiko errebindikazioa aintzat hartzea.

## 13. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari aurkezturiko gehitzeko emendakina. Honela dioen 4. puntu berria gehitzea:

“4.- Mankomunitateak Foru Lege honen xede diren garraio-eskumenak hartuko ditu 5. artikuluan aipaturiko Garraio Plana onetsi ondoren”.

Zioak: Eskumen-hartzea plana onetsia dagoeanean gerta dadila zuzenena dela deritzogu.

**14. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

4. artikuluari 5. puntu berri bat gehitzeko emendakina. Honela dio:

“Udalerrien integrazioaren ondoren sei hilabete epea igarotzen baldin bada Garraio Plana onetsi gabe, Foru Komunitateko Administrazioak bestelako kudeaketa-modua sustatuko du urtebeteko beste epe batean”.

Zioak: Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak horren alde eginiko errebindikazioa aintzat hartzea.

**15. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluari. 5. idazati berri bat gehitzeko emendakina, honela dioena:

“5. Udalerrien integrazioaren ondoren sei hilabete epea igarotzen baldin bada Garraio Plana onetsi gabe, Foru Komunitateko Administrazioak bestelako kudeaketa-modua sustatuko du urtebeteko beste epe batean.”

Zioak: Garraio Plana onetsia ez izatearen aukera aurreikustea.

**16. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluari gehiketa egiteko emendakina:

Bi lerroalde gehitzea, 4 eta 5 zenbakiak izanen dituztenak. Testua honakoa izanen da:

4. Mankomunitateak Foru Lege honen xede diren garraio-eskumenak hartuko ditu 5. artikuluan aipaturiko Garraio Plana onetsia dagoenean.

5. Udalerrien integrazioaren ondoren sei hilabete epea igarotzen baldin bada Garraio Plana onetsi gabe, Foru Komunitateko Administrazioak bestelako kudeaketa-modua sustatuko du urtebeteko beste epe batean.

Zioak: Azalpena beharrezkoa da.

**17. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluari gehikuntza egiteko emendakina

Honako edukia duten beste bi idazati gehitzea proposatzen da:

“Mankomunitateak Foru Lege honen xede diren garraio-eskumenak hartuko ditu 5. artikuluan aipaturiko Garraio Plana onetsia izan ondoren.”

“Udalerrien integrazioaren ondoren sei hilabete epea igarotzen baldin bada Garraio Plana onetsi gabe, Foru Komunitateko Administrazioak bestelako kudeaketa-modua sustatuko du urtebeteko beste epe batean.”

Zioak: Eskumenak hartu ahal izateko beharrezkoa da Garraio Planean gauzatzen den Erakundearen arteko adostasuna erdiestea.

**5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****18. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluari aurkezturiko aldatzeko emendakina. Honela idatzia geldituko da:

“5. Artikulua. Eskumen-araubidea.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko urte anitzeko Plana onetsia. Plan hori Zerbitzuaren Titular den Entitateak sustatuko du Nafarroako Gobernuaren aurrean.

2. Nafarroako Gobernuak, Garraio Planean, Foru Lege honen xede den zerbitzua ematea arautuko duten ildo nagusiak zehaztuko ditu, baita programazio eta plangintzako oinarritzko printzipioak ere; eta, gutxienez, honako gai zehatz hauek ukituko ditu:

- a) Garraio-eskaintzaren oinarritzko printzipioak.
- b) Zerbitzuen plangintza.
- c) Inbertsioen programazioa.

d) Zerbitzuak kudeatzeko kontratuak arautu beharko lituzketen oinarritzko printzipioak, zerbitzuaren kudeaketa aldatzea edo horretarako beste esleipena egitea beharrezkoa izanen balitz.

e) Plana betetzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa.

f) Tarifen markoa eta tarifen dirusarreraren bitartez kostu osotik zenbat estaliko den zehaztea.

g) Planaren helburuak lortu ahal izateko Zerbitzuaren Titular den Entitateari zer aurrekontu-baliabide eta dirulaguntza esleitu behar zaion zehaztea.

3. Laugarren artikulua aipatzen duen Entitateari dagokio Foru Lege honek arautzen duen zerbitzuaren titularitatea. Entitate horrek Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Planari jarraituz eman beharko du aipaturiko zerbitzua.

4. Hiri Garraioari buruzko Plana egiteko "Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordea" eratuko da. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta zerbitzuaren titular den entitatearenek osatuta egonen da, eta bi aldeen ordezkari-kopurua berbera izanen da. Batzorde horretan sartu ahal izanen dira kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetako ordezkariak eta kontzesio hartzaile den/diren enpresaren/enpresen ordezkariak. Batzordeak Planaren Proiektua eta beronen aldaketak idatzi beharko ditu eta testua Entitate Titularrari bidali beharko dio, zeinak testua Nafarroako Gobernuari aurkeztuko baitio. Halaber, Planaren aplikazioaren jarraipena eginen du.

5. Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordearen bidez, ukituriko gainontzeko Entitateekin koordinazio-lanak eginen dira gurpilezko trafikoa antolatzeari dagokionean, beste garraibideekiko harremanei dagokienean, hirigintza-antolamenduari dagokionean eta baterako jarduketak eskatzen dituen beste edozein gaitan. Egoki denean, ukituriko udalerrietako ordezkariak lan horietan parte hartuko dute."

Zioak: Nafarroako Gobernuak eta Entitate Titularrak hartzeko dituzten eginkizunak eta eskumenak zehaztea.

## 19. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina: 5. artikuluari aurkezturikoa.

Artikulu osoa aldatzea proposatzen da.

Proposatzen den testua: "5. Artikulua. Eskumen-araubidea.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko urte anitzeko Plana onestea. Plan hori Zerbitzuaren Titular den Entitateak sustatuko du Nafarroako Gobernuaren aurrean.

2. Nafarroako Gobernuak, Garraio Planean, Foru Lege honen xede den zerbitzua ematea arautuko duten ildo nagusiak zehaztuko ditu, baita programazio eta plangintzako oinarritzko printzipioak ere; eta, gutxienez, honako gai zehatz hauek ukituko ditu:

a) Garraio-eskaintzaren oinarritzko printzipioak.

b) Zerbitzuen plangintza.

c) Inbertsioen programazioa.

d) Zerbitzuak kudeatzeko kontratuak arautu beharko lituzketen oinarritzko printzipioak, zerbitzuaren kudeaketa aldatzea edo horretarako beste esleipena egitea beharrezkoa izanen balitz.

e) Plana betetzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa.

f) Tarifen markoa eta tarifen dirusarreraren bitartez kostu osotik zenbat estaliko den zehaztea.

g) Planaren helburuak lortu ahal izateko Zerbitzuaren Titular den Entitateari zer aurrekontu-baliabide eta dirulaguntza esleitu behar zaion zehaztea.

3. Laugarren artikulua aipatzen duen Entitateari dagokio Foru Lege honek arautzen duen zerbitzuaren titularitatea. Entitate horrek Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Planari jarraituz eman beharko du aipaturiko zerbitzua.

4. Hiri Garraioari buruzko Plana egiteko "Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordea" eratuko da. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta zerbitzuaren titular den entitatearenek osatuta egonen da, eta bi aldeen ordezkari-kopurua berbera izanen da. Batzorde horretan sartu ahal izanen dira kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetako ordezkariak eta kontzesio hartzaile den/diren enpresaren/enpresen ordezkariak. Batzordeak Planaren Proiektua eta beronen aldaketak idatzi beharko ditu eta testua Entitate Titularrari bidali beharko dio, zeinak testua Nafarroako Gobernuari aurkeztuko baitio. Halaber, Planaren aplikazioaren jarraipena eginen du.

5. Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordearen bidez, ukituriko gainontzeko Entitateekin koordinazio-lanak eginen dira gurpilezko trafikoa antolatzeari dagokionean, beste garraibideekiko harremanei dagokienean, hirigintza-antolamenduari dagokionean, udal hirigintza-planeamenduari loturiko garraio-azpiegituren taxuketari dagokionean

eta baterako jarduketak eskatzen dituen beste edozein gaitan. Egoki denean, ukituriko udalerrietako ordezkariak lan horietan parte hartuko dute.”

Zioak: Garraio Plan baten edukiak zerbitzua ongi ematea du oinarri. Horrek aukera politiko eta ekonomiko sakonak egitea ekartzen du: zer bitzua-maila nahi den, beharrezkoak diren inbertsioak, enpresei zerbitzuak ordaintzea, kostuak eta tarifak banatzea. Hori guztia Gobernuak eta Entitate Titularrak osaturiko batzorde tekniko batek egin beharko du, eta bertan erabiltzaileek zein enpresek parte hartu beharko dute.

## 20. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

5. artikulua testu honekin ordeztzeko emendakina:

5. Artikulua. Zerbitzu-ematearen araubidea.

1. Nafarroako Gobernuak eta zerbitzuaren titular den Entitateak lankidetzahitzarmen bat sinatuko dute, Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Plan bat aurreikusiko duena. Plan horrek honako hauek zehaztuko ditu:

- a) Garraio-eskaintzaren oinarrizko printzipioak.
- b) Zerbitzuen plangintza.
- c) Inbertsioen programazioa.

d) Zerbitzuak kudeatzeko kontratuak arautu beharko lituzketen oinarrizko printzipioak, zerbitzuaren kudeaketa aldatzea edo horretarako beste esleipena egitea beharrezkoa izanen balitz.

e) Plana betetzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa.

f) Tarifen markoa eta tarifen dirusarreraren bitartez kostu osotik zenbat estaliko den.

g) Planaren helburuak lortu ahal izateko Zerbitzuaren Titular den Entitateari zer aurrekontu-baliabide eta dirulaguntza esleitu behar zaion.

2. Laugarren artikulua aipatzen duen Entitateari dagokio Foru Lege honek arautzen duen zerbitzuaren titularitatea. Zerbitzu hori, aurreko idaztiak aipatzen duen hitzarmenean sarturiko Planari jarraituz eman beharko du entitate horrek.

3. Aipaturiko Planaren proiektua egiteko, “Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordea” eratuko da. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta zerbitzuaren titular den entitatearenek osatuta egonen da, eta bi aldeek ordezkari-kopurua berbera izanen da. Batzorde horretan sartu ahal izanen dira

kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetako ordezkariak eta kontzesio hartzaile den/diren enpresaren/enpresen ordezkariak. Batzordeak Planaren Proiektua eta beronen aldaketak idatzi beharko ditu. Halaber, jarraipena egingen du aurreikusiriko helburuak nola betetzen ari diren ikusteko.

4. Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordearen bidez, ukituriko gainontzeko Entitateekin koordinazio-lanak egingen dira gurpilezko trafikoa antolatzeari dagokionean, beste garraibideekiko harremanei dagokionean, hirigintza-antolamenduari dagokionean eta baterako jarduketak eskatzen dituen beste edozein gaitan. Egoki denean, ukituriko udalerrietako ordezkariak lan horietan parte hartuko dute.”

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren proposamena onartzea, egokia delakoa eta Iruñerriko Mankomunitateak berak proposaturikoari erantzuna ematen diolakoan.

## 21. EMENDAKINA

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluan aldaketa egiteko emendakina:

5. artikulua aldatzea. Testu honekin geratuko da:

5. Artikulua.

1. Nafarroako Gobernuak eta zerbitzuaren titular den Entitateak lankidetzahitzarmen bat sinatuko dute, Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Plan bat aurreikusiko duena. Plan horrek honako hauek zehaztuko ditu:

- a) Garraio-eskaintzaren oinarrizko printzipioak.
- b) Zerbitzuen plangintza.
- c) Inbertsioen programazioa.

d) Zerbitzuak kudeatzeko kontratuak arautu beharko lituzketen oinarrizko printzipioak, zerbitzuaren kudeaketa aldatzea edo horretarako beste esleipena egitea beharrezkoa izanen balitz.

e) Plana betetzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa.

f) Tarifen markoa eta tarifen dirusarreraren bitartez kostu osotik zenbat estaliko den.

g) Planaren helburuak lortu ahal izateko Zerbitzuaren Titular den Entitateari zer aurrekontu-baliabide eta dirulaguntza esleitu behar zaion.

2. Laugarren artikulua aipatzen duen Entitateari dagokio Foru Lege honek arautzen duen zerbitzuaren titularitatea. Entitate horrek aurreko idaztiak aipatzen duen hitzarmenean sarturiko Planari jarraituz eman beharko du zerbitzu hori.

3. Aipaturiko Planaren proiektua egiteko, "Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordea" eratuko da. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta zerbitzuaren titular den entitatearenek osatuta egonen da, eta bi aldeek ordezkari-kopurua berbera izanen da. Batzorde horretan sartu ahal izanen dira kontsumitzaile eta kontzesio hartzaile den/diren enpresaren/enpresen ordezkariak. Batzordeak Planaren Proiektua eta beronen aldaketak idatzi beharko ditu. Halaber, jarraipena egiten du aurreikusiriko helburuak nola betetzen ari diren ikusteko.

4. Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordearen bidez, ukituriko gainontzeko Entitateekin koordinazio-lanak egiten dira gurpilezko trafikoa antolatze-ari dagokionean, beste garraiobideekiko harremanei dagokienean, hirigintza-antolamenduari dagokionean eta baterako jarduketak eskatzen dituen beste edozein gaitan. Egoki denean, ukituriko udalerrietako ordezkariak lan horietan parte hartuko dute."

Zioak: Bilatzen denaren eta arauzko testuaren artean egokitzapen handiagoa lortzea.

## 22. EMENDAKINA

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko emendakina. Eskumenak.

Erabaki-proposamena:

Aipaturiko artikuluko 2. idazatia aldatzea eta honela uztea:

"4. artikuluko 3. idaztiak aipatzen duen Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Planak honako gutxienezko eduki hauek izanen ditu:

- Garraio-eskaintzaren oinarrizko printzipioak.
- Zerbitzuen plangintza.
- Inbertsioen programazioa.
- Ustiapen-programak."

"Urtero, aipaturiko Planari eranskin bat gehituko zaio Mankomunitateak onetsi beharko du

eranskin hori, eta bertan honako puntu hauek jasoko dira:

– Aurrekontua.

– Dirusarreraren arabera kostu osoaren zenbat estaliko den.

– Tarifen markoa.

– Administrazioek Titular den Entitateari zer aurrekontu-baliabide eta dirulaguntza esleitzea beharrezkoa den.

– Bestelako kontzeptuen bidezko dirusarrerak.

– Ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa."

Zioak: Aurrekontuei eta finantzei buruzko aurreikuspenak epe laburragoetan urtebetekoak egokitzea posible egiten du.

## 23. EMENDAKINA

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

#### FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

5. artikuluari aurkezturiko emendakina, 3. puntua gehitzekoa.

3. Iruñerriko Mankomunitateak Garraio Departamentuaren laguntza izanen du Garraioari buruzko I. Plana egiteko.

Zioak: Plana egin dadin laguntzea.

### 6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 24. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

6. artikuluari aurkezturiko emendakina, honako testu honekin ordeztzekoa:

"Indarrean dagoen legedian aurreikusitako prozeduretako edozeinen bitartez eman ahalko da zerbitzua".

Zioak: Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak horretarako egin duten erreibindikazioa aintzat hartzea.



**25. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari aurkezturiko aldatzeko emendakina. Honela idatzita geratuko da:

“6. Artikulua. Zerbitzua emateko modua.

“Indarrean dagoen legedian aurreikusitako prozeduretako edozeinen bitartez eman ahalko da zerbitzua”.

Zioak: Proposatutako idazmodua samurragoa eta zuzenagoa dela pentsatzen dugu.

**26. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluan aldaketa egiteko emendakina.

6. artikulua aldatzea. Honako testu hau izanen du:

“Indarrean dagoen legedian aurreikusitako prozeduretako edozeinen bitartez eman ahalko da zerbitzua”.

Zioak: Lege honek aplikatzekoak diren beste batzuekin duen zerikusia.

**27. EMENDAKINA****«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua ordeztzeko emendakina. Zerbitzua emateko modua.

Erabaki-proposamena: 6. artikulua testua beste honekin ordeztea:

“Indarrean dagoen legedian aurreikusitako prozeduretako edozeinen bitartez eman ahalko da Foru Lege honek arduragai duen bidaiari-garraio publikoko zerbitzua”.

Zioak: Idazmodua erraztu egiten du.

**28. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina: 6. artikuluari aurkezturikoa.

Artikuluaren eduki osoa honako lerroalde honekin ordeztea proposatzen da:

“Indarrean dagoen legedian aurreikusitako prozeduretako edozeinen bitartez eman ahalko da zerbitzua”.

Zioak: Indarrean dagoen legerari jarraituz eman behar da zerbitzua.

**7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****29. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 2. idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: 8. artikulua aldatzen duen beste emendakin batekin koherente izateko.

**30. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina: 7. artikuluari aurkezturikoa.

7. artikuluko 2. idazatia kentzea proposatzen da. Horren edukia hau da: “Foru Lege honen aplikazio eremuaren barruko udalerriek aurrekontuak prestatzeko orduan, Planean zehazten diren ekarpenei aurre egiteko behar diren kontusailak sartu beharko dituzte”.

Zioak: Finantzaletari dagokionean irizpideak bateratu nahi dira. Ez dira gauza bera baliabideak, batetik, eta finantzaketa ekartzea, bestetik; hori dela-eta, orain kenduko den idazati hau 8. artikuluari atxikitzea proposatzen da.

**31. EMENDAKINA****«EZKER ABERTZALEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluari gehiketa egiteko emendakina. Baliabideak.

Erabaki-proposamena: Aipaturiko artikuluko 1. idazatiko oraingo d) letrako testua beste honekin ordeztzea:

“Dirusarrera gehigarri gisa, hirilur-kontribuzioaren oinarri likidagarriaren gaineko gainkargu bat ezarri ahal izanen du titular den Entitateak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak xedaturikoari jarraituz.”

Aipaturiko artikuluko 1. idazatiari e) letra gehitzea, gaur egun d) letrak daukan testu berarekin.

Zioak: “Tasak” bezalako bestelako kontzeptu batengatik eginiko kobrantza ere aintzat hartzea posible egiten du.

**8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****32. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

8. artikuluari aurkezturiko emendakina, honela dioen beste batekin ordeztzeko:

8. artikulua. Finantziatorako ekarpenak.

1. Nafarroako Gobernuak eta Foru Lege honen aplikazio-eremuan sarturiko Udalerriek, Hiri Garraioari buruzko Planari jarraituz finkatzen diren ekarpenei aurre egin ahal izateko, behar adinako zenbatekoak aurreikusten dituzten kontusailak sartuko dituzte euren aurrekontuetan.

Udalerriek baimena eman ahal izanen diote Mankomunitateari Nafarroako Gobernuari hauxe eska diezaion: Foru Lege honetan araututako zerbitzua finantzatu ahal izateko Udalerriek Mankomunitateari eman behar dizkieten kopuruak ordain ditzan, Nafarroako Ogasun Publikoaren Zergetan Parte Hartzeko Fondoaren kargura.

2. Garraioari buruzko Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen berezirik ez baldin badu, automatikoki beste ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagokion gehikuntzarekin.

Zioak: Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak horretarako eginiko erreibindikazioa aintzat hartzea.

**33. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluan aldaketa egiteko emendakina:

8. artikulua aldatzea. Honela geratuko da:

1. Nafarroako Gobernuak eta Foru Lege honen aplikazio-eremuan sarturiko Udalerriek, Hiri Garraioari buruzko Planari jarraituz finkatzen diren ekarpenei aurre egin ahal izateko, behar adinako zenbatekoak aurreikusten dituzten kontusailak sartuko dituzte euren aurrekontuetan.

Udalerriek baimena eman ahal izanen diote Mankomunitateari Nafarroako Gobernuari hauxe eska diezaion: Lege honetan araututako zerbitzua finantzatu ahal izateko Udalerriek Mankomunitateari eman behar dizkieten kopuruak ordain ditzan, Nafarroako Ogasun Publikoaren Zergetan Parte Hartzeko Fondoaren kargura.

2. Garraioari buruzko Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen berezirik ez baldin badu, beste ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagokion gehikuntzarekin.

Zioak: Toki-autonomia errespetatzea.

**34. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluari aurkezturiko aldatzeko emendakina. Honela idatzita geratuko da:

“8. Artikulua. Finantziatorako ekarpenak.

1. Nafarroako Gobernuak eta Foru Lege honen aplikazio-eremuan sarturiko Udalerriek, Hiri Garraioari buruzko Planari jarraituz finkatzen diren ekarpenei aurre egin ahal izateko, behar adinako zenbatekoak aurreikusten dituzten kontusailak sartuko dituzte euren aurrekontuetan.

Lege honek arautzen duen zerbitzua finantzatu ahal izateko integraturiko udalerriek Mankomunitateari eman behar dizkieten kopuruak ordezen bidez ordainduko ditu Nafarroako Gobernuak, aipaturiko udalerrien kontura, Mankomunitateak

kopuru horiek ordain daitezten eskaturik Udalak jaramonik egin ez duenean.

2. Garraioari buruzko Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen berezirik ez baldin badu, automatikoki beste ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagokion gehikuntzarekin.”

Zioak: Garraioari buruzko Planaren finantziazioa bermatzea.

### 35. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina: 8. artikuluari aurkezturikoa.

Proiektukoaren edukia beste honekin ordeztzea proposatzen da:

“8. Artikulua. Finantziatorako ekarpenak.

1. Nafarroako Gobernuak eta Foru Lege honen aplikazio-eremuan sarturiko Udallerriek, Hiri Garraioari buruzko Planari jarraituz finkatzen diren ekarpenei aurre egin ahal izateko, behar adinako zenbatekoak aurreikusten dituzten kontusailak sartuko dituzte euren aurrekontuetan.

Lege honek arautzen duen zerbitzua finantzatu ahal izateko integraturiko udallerriek Mankomunitateari eman behar dizkieten kopuruak ordeztu bidez ordainduko ditu Nafarroako Gobernuak, aipaturiko udallerrien kontura, Mankomunitateak kopuru horiek ordain daitezten eskaturik Udalak jaramonik egin ez duenean.

2. Garraioari buruzko Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen berezirik ez baldin badu, automatikoki beste ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagokion gehikuntzarekin.”

Zioak: Idazmodu hau askoz ere hobeto egokitzen zaie lehenagotik sarturiko aldaketeki.

### 36. EMENDAKINA

#### «EZKER ABERTZALEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko emendakina. Finantziatorako ekarpenak.

Erabaki-proposamena: Aipaturiko artikuluko 1. idazatia aldatzea, honela:

“Nafarroako Gobernuak kreditu bat sartuko du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, Foru Lege honetan arautzen den zerbitzuaren Titular den Entitatearen aldekoa, Iruñerriko Bidaiari Garraio Publikoari buruzko Planarekin batera doan urteroko eranskinean Nafarroako Gobernuaren ekarpen gisa agertzen den kopuruaren hainbestekoa izan dena”.

Zioak: Nafarroako populazioaren erdiarentzat funtsezkoa den zerbitzu bat mantentzera behar izan du Gobernuak.

### 37. EMENDAKINA

#### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

##### FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

8. artikuluko (finantziatorako ekarpenak) 1. puntua aldatzeko emendakina. Honela geratuko litzateke:

1. Nafarroako Gobernuak kreditu bat sartuko du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, Foru Lege honetan biltzen den garraio-zerbitzua kudeatzeko entitatearen aldekoa, Iruñeko Udalaren garraio publikoaren defizita estaltzeko Nafarroako Gobernuaren ekarpena mantentzeko.

Zioak: Urteroko ekarpena ziurtatzea.

### 38. EMENDAKINA

#### «EZKER ABERTZALEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua (finantziatorako ekarpenak) kentzeko emendakina.

### 39. EMENDAKINA

#### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

##### FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

8. artikuluko 2. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Aurreragoko emendakinekin koherentzia mantentzea.

**40. EMENDAKINA****BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

8. artikuluari aurkezturiko emendakina, 2. puntua beste batekin ordeztuko. Honela geratuko litzateke:

2.- Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalaren hiri-garraio publikoaren defizita estaltzeko ekarpena egin ahal izateko, Mankomunitateak proposamen bat aurkeztuko du bere Garraio Planean, eta onetsi aurretik Foru Administrazioaren Finantza-keta Erabakia eduki beharko du. Erabaki horretan egokitzat jotzen diren kontrol- eta jarraipen- neurriak ezarri beharko dira.

Zioak: Iruñeko Udalaren defizitaren araberako ekarpena ziurtatzea.

**41. EMENDAKINA****«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua (finantziatorako ekarpenak) aldatzeko emendakina.

Erabaki-proposamena: Aipaturiko artikuluko 3. idazatikoa testua aldatzea, honela utziz:

“2.- Iruñerriko Bidaiari Garraio Publikoari buruzko Planaren indarraldia amaiturik, beste bat onetsi ez baldin bada, edo hori bera luzatu ez baldin bada, Foru Lege honetan arauturiko garraio-zerbitzua finantzatzeko Nafarroako Gobernuak eginen duen ekarpena azken ekarpenaren hainbestekoa izanen da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeko portzentaiarekin handitua.”

**42. EMENDAKINA****«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluari (finantziatorako ekarpenak) gehiketa egiteko emendakina:

Erabaki-proposamena: Beste lerroalde bat gehitzea, honako testu hau izanen duena:

“Udalerriek baimena eman ahal izanen diote Mankomunitateari Nafarroako Gobernuari hauxe eska diezaion: Lege honetan araututako zerbitzua finantzatu ahal izateko Udalerriek Mankomunitateari eman behar dizkieten kopuruak ordain ditzan, Nafarroako Ogasun Publikoaren Zergetan Parte Hartzeko Fondoaren kargura.”

**LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIAR  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****43. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Gehigarriari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Lehen Xedapen Gehigarria kenduko da.

Zioak: Aurkezturiko gainontzeko emendakinekin koherentzia mantenduz.

**44. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Gehigarria kentzeko emendakina.

Zioak: ez da beharrezkoa.

**45. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Gehigarria kentzeko emendakina:

Zioak: horren edukia ez da beharrezkoa.

**46. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Gehigarria kentzeko emendakina.

Zioak: Lehen Xedapen Gehigarria kentzea proposatzen da bere edukia, aurreragoko emendakin baten bitartez, 4. artikuluan sartu delako.

**47. EMENDAKINA****BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen Gehigarriari aurkezturiko emendakina, "Pamplona" esaten den bakoitzean "Iruña" eransteke.

Zioak: Terminologia egokia erabiltzea.

**48. EMENDAKINA****«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Gehigarria aldatzeko emendakina:

Erabaki-proposamena: "...eta Iruñeko Udalarri" hitzak beste hauekin ordeztzea: "...eta ukituriko Udalerri..."

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

**49. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Bigarren Xedapen Gehigarriari aurkezturiko emendakina, honela dioen beste batekin ordeztzeko:

Xedapen Gehigarriak

Bigarrena. Sistema horren bideragarritasuna eremu txikiago batean.

4. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Mankomunitatean udalerri guztiak integratuko ez balira edo baten batek Mankomunitatetik ateratzea erabakiko balu, Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Plana aldatu beharko litzateke, aztertzeko Foru Lege honetan araututako hiri barruko garraio publikoaren sistema gelditzen diren lurraldeetan kudeatzea bideragarria ote den.

Nafarroako Gobernuak erabakiko balu sistema hori gelditzen den lurraldean ez dela bideragarria, urtebeteko epean beste kudeaketa-modu bat sustatu beharko luke.

Zioak: Aurkezturiko gainontzeko emendakinekin koherentzia mantentzeko.

**50. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren Xedapen Gehigarriari aurkezturiko aldatzeko emendakina.

"...Nafarroako Gobernuak, Mankomunitatearen txostena ikusita, aztertuko luke..." esan ordez, zera esan behar du: "...Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Plana aldatu beharko litzateke, aztertzeko..."

Zioak: Udalerri bat edo batzuk Mankomunitatetik ateratzeak Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Plana aldatzea ekarri behar du berarekin.

**51. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren Xedapen Gehigarrian aldaketa egiteko emendakina:

Bigarren Xedapen Gehigarria aldatzea, testu honekin geratuz:

"...Mankomunitatetik ateratzea erabakiko balu, Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Plana aldatu beharko litzateke, aztertzeko..."

Zioak: Egoera hori kontuan izatea.

**52. EMENDAKINA****«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren Xedapen Gehigarria aldatzeko emendakina:

Erabaki-proposamena: Aurkezturiko testua aldatzea, honela geratuz:

"4. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Mankomunitatean udalerri guztiak integratuko ez balira, baten batek Mankomunitatetik ateratzea erabakiko balu, edo beranduago besteren bat Mankomunitatean integratuko balitz, Iruñerriko Bidaiari Garraio Publikoari buruzko Plana aldatu beharko litzateke, aztertzeko Foru Lege honetan araututako bidaiari-garraio publikoa kudeatzeko sistema gelditzen diren lurraldeetan bideragarria ote den."

"Nafarroako Gobernuak erabakiko balu sistema hori gelditzen den lurraldean ez dela bideraga-

ria, hiru hilabeteko epean beste kudeaketa-modu bat sustatu beharko luke.”

### 53. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina: Bigarren Xedapen Gehigarriari aurkezturikoa.

Proiektuak “...Nafarroako Gobernuak, Mankomunitatearen txostena ikusita, aztertuko luke...” esan ordez, zera esan behar du : “...Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Plana aldatu beharko litzateke, aztertzeko...”.

Zioak: Lehenago aurkezturiko emendakinekin koherentzia mantentzea.

### 54. EMENDAKINA

#### «EZKER ABERTZALEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren Xedapen Gehigarriari aurkezturiko emendakina:

Erabaki-proposamena: Xedapenaren izenburua, “Sistema horren bideragarritasuna eremu txikiago batean”, beste honekin ordeztzea: “Sistema horren bideragarritasuna eremu desberdin batean”.

#### HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 55. EMENDAKINA

#### «EZKER ABERTZALEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina, 3. Xedapen Gehigarriari aurkezturikoa:

Erabaki-proposamena: “... honakoak alegia...”tik aurrera testu guztia kentzea, Xedapen Gehigarria honela geratuz:

“Foru Lege honetan xedatutakoaren ondorioz, 3. artikuluan mugatutako eremuan partzialki nahiz bertatik atera gabe aritzen diren egungo kontzesioak ukituak izanen dira.”

### 56. EMENDAKINA

#### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

##### FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Hirugarren Xedapen Gehigarriari aurkezturiko emendakina.

Aipaturiko udalerrietako toponimia zuzena erabil dadin ziurtatzea.

Zioak: Terminologia zuzena ziurtatzea.

### 57. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren Xedapen Gehigarrian aldaketa egiteko emendakina:

Hirugarren xedapen hori bigarren bihurtzea.

Zioak: Egokitasuna.

### 58. EMENDAKINA

#### «EZKER ABERTZALEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina:

Erabaki-proposamena: Beste Xedapen Gehigarri bat eranstea laugarrena, hain zuzen, honako testu honekin:

“Iruñerriko Bidaiari Garraio Publikoari buruzko Planaren eranskinetako tarifa-markoa, 5. artikulua aipatzen duena, urtero egiten da, zerbitzuaren doakotasunerantz joz, honako premisa hauetan oinarrituz:

1.- Jubilatutako langabetu eta ikasleentzako txartelen prezioan urtero %25eko murrizketa egitea, lau urteren buruan pertsona-talde horientzat doakotasun osoa lortu arte.

2.- Gainerako pertsonentzako txartelen prezioan urtero %15eko murrizketa egitea, zazpi urteren buruan doakotasun osoa lortu arte.

3.- Bi murrizketa horiek aldi berean egiten dira.

Zioak: Doakotasuna funtsezkoa da garraio publikoa sendotzeko.

XEDAPEN IRAGANKORREI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

**59. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina: Lehen Xedapen Iragankorrari aurkezturikoa.

Xedapen Iragankor horren lehen lerroaldea kentzea proposatzen da. Honela dio: “6. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hirugarren xedapen gehigarrian adierazitako kontzesioek bere horretan segituko dute.”

Zioak: Zentzurik ez du, 6. artikulua aldatu ondoren.

**60. EMENDAKINA**

**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen Iragankorretako bigarren lerroaldeari aurkezturiko emendakina, beste honekin ordeztetako:

“Mankomunitateak urtebeteko epea emanen du egungo kontzesio-hartzaileek kontzesioa titular bakar baten esku uzteko egoki diren jarduketak egin ditzaten. Kasu horretan, kontzesio-epe berri bat finkatu ahal izanen da.”

Zioak: Kontzesioen bateraketa erraztea.

**61. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Iragankorreko bigarren lerroaldea aldatzeko emendakina.

“...horrek onetsitako planaren arabera...” esan beharrean, “...Nafarroako Gobernuak onetsitako planaren arabera...” esan behar du.

Zioak: Iruñerriko Hiri Garraioari buruzko Plana Nafarroako Gobernuak onar dezala proposatu dugu beste emendakin batean.

**62. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Iragankorrean aldaketa egiteko emendakina:

Lehen Xedapen Iragankorreko bigarren lerroaldea aldatzea, honela gera dadin:

“...eta Nafarroako Gobernuak onetsitako planaren arabera, egungo...”

Zioak: Aurrekoari egokitzea.

**63. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina: Lehen Xedapen Iragankorrari aurkezturikoa.

Proiektuak, “...eta horrek onetsitako planaren arabera...” esan ordez, “...eta Nafarroako Gobernuak onetsitako planaren arabera...” esan behar du.

Zioak: 5. artikulua ukitzen duen emendakinen ondorioa da.

**64. EMENDAKINA**

**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Iragankorreko bigarren lerroaldeari aurkezturiko emendakina, aldaketa egiteko, honelaxe:

“...horrek onetsitako” esan ordez, “Nafarroako Gobernuak onetsitako” esan beharko du (gainontzekoa berdin).

Zioak: Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak horretarako eginiko erreibindikazioa aintzat hartzea.

**65. EMENDAKINA**

**«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Iragankorrari aurkezturiko aldatzeko emendakina:

Erabaki-proposamena: Hirugarren lerroaldeko lehen lerroa aldatzea; “Mankomunitateak, zerbi-

tzuaren kudeaketa bere gain hartu ondoren,...” esan beharrean, hauxe esan bedi: “Mankomunitateak, zerbitzuaren titularitatea eta kudeaketa bere gain hartu ondoren...”.

Zioak: Testuari koherentzia eta argitasun handiago emateko.

## 66. EMENDAKINA

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen Iragakorren hirugarren lerroaldeari aurkezturiko emendakina; honela idatzita geratu-ko litzateke:

“Aurreko idazatian aipatu batasuna epe horretan egin ez baldin bada, hark behartu ahalko ditu Foru Lege honetan zehazturiko eremuan garraio zerbitzua ematen ari diren enpresak behar diren aldaketak egin ditzaten kontzesioak ustiatzeko baldintzetan, programak eta koordinazio neurriak errespetatzen direla bermatzeko”.

Zioak: Zerbitzua bermatzea.

## 67. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen Xedapen Iragakorrari aurkezturiko gehitzeko emendakina. Honela dioen laugarren lerroalde bat gehitzea:

“Gehienez ere urtebeteko epean, entitate kudeatzaileak egoki den kontzesio-bateratzerako espedientea izapidatu beharko du, oinarriko legediari jarraituz, Lege Proiektu honek lortu nahi duen prestazio bateratua bermatu ahal izan dadin.”

Zioak: Prestazio bateratua bermatzea.

## 68. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina: Lehen Xedapen Iragakorrari aurkezturikoa.

Beste lerroalde bat gehitzea proposatzen da, eduki hau izanen duena:

“Gehienez ere urtebeteko epean, entitate kudeatzaileak egoki den kontzesio-bateratzerako

espedientea izapidatu beharko du, oinarriko legediari jarraituz, Lege Proiektu honek lortu nahi duen prestazio bateratua bermatu ahal izan dadin.”

Zioak: Proiektuko testua hobetu egiten du.

### LEHENENGO AZKEN XEDAPENARI ETA SISTEMATIKARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 69. EMENDAKINA

### «EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Izenburuari eta Azken Xedapenetako Lehenari aurkezturiko emendakina:

Erabaki-proposamena: “Lineako” hitza “Publiko”rekin ordeztzea.

## 70. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina: I. Kapituluari aurkezturikoa.

“I. Kapituluua” esan ordez “I. Titulua” esan behar du.

Zioak: Proiektuaren sistematika hobetu egiten du.

## 71. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina: II. Kapituluari aurkezturikoa.

Proiektuko testuak esaten du: “II. Kapituluua. Entitate Kudeatzailea”. Horren ordez “II. Titulua. Entitate Titularra” jartzea proposatzen da.

Justifikazioa: Legeak arautzen duen arloaren gaineko eskumena esleitua duen entitateari “Entitate Titular” deitzea egokiagoa da.



**72. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

II. Kapituluak aldatzeko emendakina.

IHonela idatzita geratuko da:

“Entitate Titularra”.

Zioak: Mankomunitatea izanen da zerbitzua kudeatzeko entitatea eta eskumenen titularra.

**73. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

II. Kapituluak aldatzeko emendakina.

II. Kapituluaren izenburuan, “Entitate kudeatzailea” jarri ordez, “Entitate titularra” jarri.

Zioak: Zehaztasun handiagoa.

**74. EMENDAKINA**

**«EZKER ABERTZALEA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

II. Kapituluari aurkezturiko emendakina:

Erabaki-proposamena: II. Kapituluaren izenburua, “Entitate kudeatzailea”, “Entitate titularra”-rekin ordeztu.

**75. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko emendakina: III. Kapituluari aurkezturikoa.

“III. Kapituluak” jarri ordez “III. Tituluak” jartzea proposatzen da.

Zioak: Proiektuaren sistematika hobetu egiten du.

**76. EMENDAKINA**

**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL  
FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA**

Legearen gaztelerazko izenburuari aurkezturiko emendakina, “Ley Foral del transporte regular de viajeros en la Comarca de Pamplona-Iruñerria” izena izan dezan.

Zioak: Euskarari buruzko araudia betetzea.

**77. EMENDAKINA**

**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL  
FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA**

Gaztelerazko Zioen Azalpeneko lehen lerroaldeari aurkezturiko emendakina. Honela geratuko litzateke: “En la actualidad, Pamplona-Iruña y los municipios de sus alrededores...”.

Zioak: Toponimia egokia erabiltzea.

**78. EMENDAKINA**

**«EZKER ABERTZALEA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Azken Xedapenetako Lehenari aurkezturiko emendakina:

Erabaki-proposamena: Azken lerroa aldatzea: “Errepideko Hiri Barruko Garraio Publikoa arautzen duen Foru Legean” esan ordez “Lur Gaineko Garraio Publikoa arautzeko Foru Legean” esan dadila.

Zioak: Aurretik eginiko emendakinekin koherentzia mantentzeko.

## **Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINA*

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua aurkeztutako osoarekiko emendakina baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Herrilan eta Azpiegitura Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **“2000 Agenda”k Nafarroan izango duen eraginari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak “2000 Agenda”k Nafarroan izanen duen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak 2000 Agendak Nafarroan izanen duen eraginari buruzko galdera egin eta idatziz erantzutea eskatu zuen. Horri erantzunez, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak ondokoa agertu du:

2000 Agendaren azterketak ondokoa erakusten du Nafarroaren ikuspegitik:

a) Nafarroa ez da sartuko etorkizuneko 1. helburuan, bere BGP/biztanle-ak nabarmenki gainditzten baitu Europako Komunitateko batezbesteko BGP/biztanle-aren % 75a.

b) Nafarroaren interesa 2. helburuan egotea izanen da. Helburu honek barne hartuko ditu nola-bait gaurko 2. eta 5b helburuak; eta helburu hauek, Nafarroa hautagarria da egungo 94-99 programazio-aldian, gutxi gora-behera lurraldearen % 90ean eta biztanleriaren % 60ean.

2000 Agendak dio mota ezberdinetako eremu hautagarriak egon daitezkeela etorkizuneko 2. helburuaren esparruan, eta eremu hauen aukeraketan, kontutan hartuko direla langabezi tasa, enplegu industrialaren maila, nekazaritza jarduera, arrantzak eraginikoa eta bere bilakaera, eta gizarte bazterketa maila; baina dokumentuak ez du gehiagorik esaten. Beraz, nabaria da hautagarritasun irizpideak argiagoak izan beharko dutela

eremu hautagarri(ar)entzako, etorkizuneko 2. helburuaren esparruan.

M. Leygues-ek, Eskualde Politikaren Sorkuntza A Zuzendaritzako zuzendariak, Eskualde eta Kohesio Politikako XVI. Zuzendaritza Orokorrean, 2000 Agendari buruzko Europako Parlamentuko Eskualde Politikarako Batzordean egin zuen mintzaldian zehaztu zuenez, hautagarritasun irizpideen argitzea galarazi gabe, hauek, nagusiki, oinarritzat hartuko dituzte enplegu industrialaren maila, nekazaritza jarduera, arrantzak eraginikoa eta bere bilakaera, eta gizarte bazterketa maila.

Noiz eta nola zehaztuko dira hautagarritasun irizpideak, Nafarroari aplikatu ondoren honen kokalekua emanen digutenak (bai osoki edo ez osoki 2. helburu berrian, bai osoki edo ez osoki 3. helburu berrian)?

Negoziaketaren egutegiak ondokoa aurreikusi zuen:

1997ko irailtik-abendura, Batzordeak Europako Parlamentuarekin eztabaidatuko zuen.

1997ko abenduaren 12an-13an, Luxemburguen, Estaturuaren eta Gobernuaren Kontseiluak 2000-2006 finantza-koadroa zehaztu beharko zuen, programazioaren abiapuntu gisa.

1998ko lehenengo seihilekoan, zehaztu beharko dira, kide diren Estatuak emaniko aurrekontu nazionalak, egitura-fondoak direla eta.

1999ko ekainean, erregelamenduak onestu, eta prozedurak abiarazi.

Esandakoaren ondorioa hau da: aurreikusitakoa betetzen bada, 1998ko bigarren seihilekoan zehaztuko dira hautagarritasun irizpideak, gero Erregelamenduan jarri beharko direnak; horrelaxe egin zen egungo 94-99 programazio-aldian: hautagarritasun irizpideak 1993ko uztailearen 20ko Kontseiluaren 2081/93 Erregelamenduan jarri ziren.

Esandako guztiagatik, ezin da jakin 2000 Agendak Nafarroan izanen duen eragina, ez baita ezagutzen behin-betikoz, ez finantza-koadro osoa, ez Espainiak izanen duen partehartzea; 2. helburua izanen denaren hautagarritasun irizpideak ere ez dira ezagutzen, ezta horrek hartuko dituen eremuak ere.

Egin, Nafarroako Gobernua egiten ari dena da, gertutik jarraitu negoziaketa prozesu osoa, eta gaia eztabaidatzen den foro guztietan aktiboki parte hartu.

– 2000 Agendari buruzko lehenengo informazioak jakin ziren bezain pronto, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak Nafarroaren interesak defendatu zituen bilera bitan: bata Eskualde Politika eta Kohesio Fondoetarako Komisario Europearrarekin, Monika Wulf-Mathies-ekin hain zuzen (97-4-29), eta gai horien zuzeneko ardura duen Zuzendari Nagusiarekin, Eneko Landábururekin hain zuzen (97-6-11).

Kontseilariak, halaber, parte hartu zuen Senatu Autonomi Erkidegoen Batzorde Orokorrean, non Europako Parlamentuko Eskualde Politikarako Batzordeko Presidenteak azaldu baitzuen Europako Batasuneko egitura-fondoetan eginiko aldaketa (97-10-13). Eta berriki (97-11-19 eta 20), Kontseilariak parte hartu zuen Bruselan eginiko Eskualdeen Komitearen osoko bilkuran, non bi txosten eztabaidatu ziren, bata 2000 Agendari buruz eta bestea egitura-fondoetan aldaketari buruz; han izan ziren Europako Batzordeko Presidenteak, Jacques Santer, eta Wulf-Mathies Komisaria (Eskualde Politikak) eta Fishler Komisaria (Nekazaritza eta Landa Garapena).

Kanpo Egintzetarako Zerbitzuko Zuzendariak parte hartu zuen Logroñon urriaren 1ean etorkizuneko 2. helburuari buruz izan zen jardunaldian, eta jardunaldi horretan ere izan ziren gaur egun helburu horretan dauden beste erkidego batzuetako ekonomi departamentuetako ordezkariak, hala nola, Euskadi, Errioxa, Aragoi, Katalunia eta Madrilekoak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko ordezkariak eta Batzordekoak.

Jardunaldi horretan eta Ministerioko eta Batzordeko ordezkariak ondokoak eskatu zizkieten autonomi erkidegoei:

– Hautagarritasun irizpideak datu estatistiko argitaratu eta garbietan oinarrituak egon zitezela, hala nola, BGP/biztanle, langabezi tasa, enplegu industrialaren portzentaia, etab.

– Autonomi erkidegoek argi eta garbi utz zezatela etorkizuneko 2. helburuan sartzea nahi dutela arazoak dituzten hiriguneetarako laguntza, kontu-

tan hartuta Batzordeak 1. eta 2. helburuan laguntza jasotzen duen biztanle kopurua egungo % 51tik % 35 eta 40 % arteko kopurura jeitsi nahi duela.

– 2. helburua, funtsean, aldaketa prozesuan dauden eremu industrialei laguntza emateko helburu izaten segi dezala, indarrean dagoen programazio epean izan den bezala.

– Lurraldeetako programak DOCUP (programazio dokumentu bakarra) gisa egin daitezela, Komunitatearen Laguntza Markorik gabe, eta eskualde bakoitzak, bere programari esleitutako baliabide kopurua gaintu gabe, xedatu dezatela fondoetan zer partehartze eginen den.

Halaber, Europako fondoetan eta ekimenen etorkizunari buruzko bi jardunaldi garrantzitsutan ere parte hartu dugu. Batetik, Itsasaldekoak eta Periferikoak diren Eskualdeen Batzarraren urteroko biltzarrean, eta Atlantiko alderdiko Eskualdeen Batzarraren urteroko biltzarrean; jardunaldi horiek, aurtun, La Rochellen (Frantzia) egin dira urriaren 8, 9 eta 10ean, eta horietan hizpide izan zen bai 2000 Agenda, bai eskualdeen arteko eta mugakideen elkar laguntzarako ekimenen etorkizuna (INTERREG). Bestetik, Bruselan landa garapenerako ekimenei (LEADER) buruz azaroaren 10 eta 11n egin ziren jardunaldietan.

Halaber, RETIren (Teknologia Industrialdun Eskualdeen Elkarteak) barnean izan diren eztabaidak guztien jarraipena ere egin dugu, eta AREren (Europako Eskualdeen Elkarteak) hurrengo Batzar Orokorrean ere parte hartuko dugu; hori Montpellierren izanen da abenduaren 4 eta 5ean.

Jarraipen horretaz gain, Nafarroako Gobernuak badu datu estatistikorik eremuen hautagarritasunerako adierazle izan daitezkeenei buruz, baina, lehen esan den bezala, ez dago horiek baloratzerik hautagarritasun irizpideak argitu eta zehaztu arte.

#### EUROSTAT 1996

##### Enplegua 1995ean, guztira

EU-15	gizonak:	86.858.000
	emakumeak:	61.552.000

Nafarroa	gizonak:	124.000
	emakumeak:	58.000

##### Langabezia (1995eko apirilean)

EU-15		17.792.400
	gizonak:	9.121.500
	emakumeak:	8.670.900

Nafarroa	26.000
gizonak:	11.100
emakumeak:	15.100
<u>Enplegu industrialia</u>	
EU-15	ez dago daturik
Nafarroa	63.000
ITURRIA: STATISTIQUES EN BREF (EUROSTAT)	
1994 urtea	
<u>BGP guztira</u>	
EU-15	6.192.000 milioi ECU
Nafarroa	6.528 milioi ECU
	7.950 milioi ECU pps
<u>BGP biztanleko</u>	
EU-15	16.644 ECU
Nafarroa	12.470 ECU
	15.186 ECU pps
1995 urtea	
BPG EU-15	6.434.300 milioi ECU
BPG EU-15 / Bizt.	17.243 ECU
pps: erosteko ahalmen parekidea	
ITURRIA: EUROPAKO ESKUALDEA, ZENBAKITAN. AKITANIA-NAFARROA-EUSKADI	

1997ko maiatzean	
<u>Langabezia</u>	
EU-15	17.728.000
Nafarroa	24.400
<u>BPG</u>	
EU-15	5.868.175 milioi ECU pps
Nafarroa	7.922 milioi ECU pps
<u>BPG biztanleko</u>	
EU-15	15.845. ECU pps
Nafarroa	15.136 ECU pps
<u>Enplegu industrialia</u>	
EU-15	46.210.000
Nafarroa	54.400
<u>Lana dutenak, sektoreka (%)</u>	
EU-15	%30,2 (Industria + Eraikuntza).
Nafarroa	%28,8 Industria
	%8,7 Eraikuntza

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## Nafarroako Gobernuak lan istripuei aurre egiteko hartuko duen neurriei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak lan istripuei aurre egiteko hartuko duen neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak lan-arriskuei aurre hartzeko aurreikusitako jarduketei buruz Martín

Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria den Ramón Bultó Llevat jaunak honako erantzun hau bidaltzen du:

1.-Lan-ikuskaritza organikoki Lan, Gizarte Segurantzaren eta Gizarte Gaien Ministerioaren ardurapean dago; beraz, Nafarroako Gobernuak ez du eskumenik ikuskaritzaren giza-baliabideak gehitzeko. Nafarroari esleituriko 9 postuak beteta daudela adierazi behar da.

2.- Nafarroako Lan Osasunaren Institutua sortu zenetik arlo honetan eskudun diren Foru Komunitateko osasun- eta lan-administrazioak koordinaturik daude Nafarroan.

Bai aipaturiko erakunde autonomoko Gobernu Batzordean bai Nafarroako Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kontseiluan, Osasun eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuetako ordezkariak daude, baita Estatuko Administrazio-koak ere (Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza). Sindikatuak eta enpresarien organizazioak ere ordezkaturik daude.

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekin jarduerak batera eta koordinatuz egiten dira.

3.- Nafarroako Lan Osasunaren Institututik, Lan Istripuetarako Mutualitateekin eta Gizarte Segurantzarekin lankidetzan, lan-arriskuei aurre hartzeko araudi bat ezartzen laguntzeko eta jarraipen bat egiteko kanpaina bat burutzen ari da Nafarroako 1200 enpresatan, hiru jarduketa-fase egonik, 18 hilabeteko epean. Aurki, eraikuntzaren sektoreari zuzenduriko antzeko kanpaina bati ekingo zaio, sektorearen berezitasunek eta eraikuntza-obrei buruz berriki onetsiriko dekretuak beharrezko egiten dituzten egokitzapenekin.

Halaber, informazio- eta prestakuntza-kanpaina zabal bat burutzen ari da, lan-arriskuei aurre hartzeko, maila guztietan, bai zuzenean bai beste hainbat jarduketa indartuz. Nafarroako enpresetan, oinarritzko mailan, lan-arriskuak saihesteko funtzioak garatzeko gaitze-plan bati ekin zaio.

Lan Osasunari buruzko Batzorde Aholkuemai-le Teknikoa Nafarroako lan-osasunari buruzko

diagnostikoari eta planari dagokienez ari da bere jarduerak burutzen, eta horiek 1998an bukatzea aurreikusten da.

Langileek, sindikatuak, enpresariak eta horien ordezkariak eskaturik, aholkularitza eta laguntza teknikoko jarduketei jarraipena eman zaie.

Eta jarduerak oraindik gehiago ugarituko dira Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzarekin koordinatuz.

Jarduketa-plan guztiak Nafarroako Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kontseiluari eta egoki diren Batzordeei aurkezten zaizkie, eta horiek egiten dute jarraipenik hurbilena.

4.- 1986an transferentziak egin zirenetik, Gobernuak erregistro bat dauka eskura, bertan bai lan-araudia bai laneko segurtasun eta osasunari buruzkoa ere hausteagatik lan-agintarien aurrean izapidatzen diren zehapen-espeditente guztiak agertuz. Beraz, Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko araudia hausteagatik zehatuak izan diren enpresen berariazko erregistro bat ez egonik ere, datu horiek eskura eduki daitezke eta, izan ere, eskura daude.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## **Volkswagenek Iruñean daukan lantegia Seat entpresari saltzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Volkswagenek Iruñean daukan lantegia Seat entpresari saltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Landabengo lantegia SEAT enpresari saltzeari buruz Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"-ko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion egini-ko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidali

du Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria den Ramón Bultó Llevat jaunak:

Nafarroako Gobernuak "Volkswagen Navarra"-rekin izandako elkarrizketetan, nafar enpresaren helbidean zein Volkswagen taldearekin duen menpekotasun-harremanean eragina izango duen antolaketa-aldakuntzarik gertatuko ez dela ziur-tatu ahal izan da.

Horrela, ba, gerta litekeen baina, lehen esan bezala, enpresak Nafarroan duen helbidea aldatzen ez duen edozein aldaketak, ez luke ia ondorio negatiborik izango Foru Ogasunarentzat, PFE-Zak eta BEZak alegia, bi dirusarrera-iturri garrantzitsuenek ez luketelako eraginik pairatuko.

Iruñean, 1997ko azaroaren 17an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat.

## **Tokoginekologia eta Famili Plangintza arloetako osasun-prestazioaren gaineko irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretuari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Tokoginekologia eta Famili Plangintza arloetako osasun-prestazioaren gaineko irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Tokoginekologia eta Famili Plangintza arloetako osasun-prestazioen antolamendua ezartzen duen 259/1997 Foru Dekretuaren garapenari dagozkion hainbat alderdiri buruz M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru

Parlamentari andreak egini-ko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

1.- 259/1997 Foru Dekretua indarrean sartu zenean FOSHEZek zuten langileria guztia, eta honen funtzioak, onartu egingo al dira?

3.- 259/1997 Foru Dekretuaren garapenak, FOSHEZek izan dituzten funtzioez gain, FOSHEZak Oinarrizko Laguntzara atxikitzea eta arlo guztietan egitura-mota bera egotea aurreikusten al du?

259/1997 Foru Dekretuaren Bosgarren Xedapen Gehigarriari jarraituz, Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroek (FOSHEZ) euren dotazioak, atxikitze-egoerak eta funtzioak mantendu egingo dituzte, gaur egungo termino beretan; eta aplikatu dakiekeen eta indarrean dagoen araudiak arautuko ditu.

2.- Emakumearentzako osasun-laguntzaren antolamenduak 259/1997 Foru Dekretuaren eranskinetan jasotzen diren edukia eta langileria-diseinua errespetatuko al ditu, horrek ondorio gisa profesionalengan presiorik egitea ekarri gabe?

Aipaturiko Foru Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarriari jarraituz, II. Eranskinean zehazten diren postuak dauden baliabideak atxikiz beteko dira; horretarako, Foru Aginduz onetsiriko

deialdi bidez hornituko dira, borondatezkotasun eta adostasun irizpideekin.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dut hau.

Iruñean, 1997ko azaroaren 10ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat ..... 5.900 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .</p>	<p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------